

EAEko curriculumak Espainiako Konstituzioa oinarri duela dio Sortzenek

Sortzenek egindako ekarpenak kontuan hartu ditu Jaurilaritzak, baina «ardatza ez dute aldatu»

MAITE ASENSIO
Bilbo

Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza Sailak maiatzean aurkeztutako Euskal Autonomia Erkidegoko curriculum dekretua LOEn eta Espainiako Konstituzioan oinarritzen dela salatu zuen atzo Sortzen-Ikasbatuaz-ek. Maiatzean bertan, Sortzen-Ikasbatuaz-ek ekarpen idatzia helarazi zion Jaurilaritzari, «dekretuan aldatu beharreko ildo nagusiak» azaltzeko. Ordutik, Jaurilaritzak «diskurtsoa aldatu» duela onartzen du elkarteak, baina curriculumaren ardatzek bere horretan dirautela uste du.

Sortzen-Ikasbatuaz-ek salatu du Eusko Jaurilaritzaren curriculumak oinarrian dituela LOEk eta Espainiako Konstituzioak diotena, helburuetatik hasita, eta eskolan garatu beharreko gaitasunak zein barneratu beharreko baloreak barne. Sortzen-Ikasbatuaz-eko koordinatzaile Aitziber Martinez de Lagosen esanetan, EAEko curriculumak «ardatz arrotzak inposatzen ditu»: ez dio naziotasun ikuspegiari heltzen, ez du euskara ardatz hartzen, eta ez du euskal kultura garatzeko eta transmititzeko tresnarik eskaintzen. Hortaz, «ez du balio Euskal Eskola Publiko Berria eraikitzeko».

Ildo horretan, Eusko Jaurilaritzaren curriculumak eta Euskal Curriculumak bereizi nahi izan zituen Sortzen-Ikasbatuaz-ek. Martinez de Lagosen hitzetan, Euskal Curriculumak «Euskal Herri osoko eskola eta hezkuntza eragilean partaidetzarekin eta Euskal Herriko ikasle guztientzat eraikitako planteamendu pedagogiko komuna da, euskara eta euskal kultura ardatz dituena». EAEko curriculumak, berriz, «Espainiako Estatuko curriculum erreformaren barruan dago», hots, LOEk gobernu autonomikoei ezarritako zeregina da. Hezkuntza Sailak biak nahastzen saiatu dela salatu du elkarteak.

EUSKAL HERRIAREN DEFINIZIOA. Euskal Herria «Arabak, Bizkaiak, Gipuzkoak, Lapurdik, Nafarroa Garaiak, Nafarroa Behereak eta Zuberoak osatutako lurralde eremua» dela dio Jaurilaritzaren curriculumak. Edukiak aztertu ostean, ordea, dekretua «esaldi horren ukazio praktikoa» da Andoni Lariz Sortzen-Ikasbatuaz-eko euskal curriculumaren arduradunaren aburuz. Izan ere, «lurralde erreferentziak ez dira era koherentean garatzen»: Euskal Herria Espainiarekin lotuta agertzen da, eta hainbat irakasgaitako edukietan ez zaio Ipar Euskal Herriari erreferatzen.

Eskolaren antolaketa eskola komunitatearen partaidetza areagotzeko planteamendurik ez egoitea ere salatu zuen elkarteak: «Administrazioaren aginduetara men egiten duen eskola izaten jarraituko dugu».



Tontxu Campos Jaurilaritzako Hezkuntza sailburua, erdian, EAEko curriculumaren aurkezpenan, maiatzean. R. BOCAJO / ARP

■ SORTZEN-IKASBATUAZ-EK EGINDAKO KRITIKA

■ **Espainiako Konstituzioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua:** Haien balioak barneratu behar dituzte ikasleek. Hala dio dekretuaren helburuetako batek: «Ezagutu, bere egin eta baloratu giza eskubideen nazioarteko agiri-tatik, Umearen Eskubideen Konbentziotik, Espainiako Konstituziotik eta Autonomia Estatututik eratorritako eskubide eta betebeharrak, identifikatuz eta onartuz oinarri dituzten balioak, etikoki baloratzeko jarrera kolektibo eta pertsonalak, eta haietatik eratorritako gizar-te errealitateak».

■ **Euskal kultura:** Hala dio dekretuaren helburuetako batek: «Ikasleek euskal kulturako eta kultura unibertsaleko oinarriko elementuak eskura ditzaten lortzea, eta maila handiagoko ikasketak egiteko nahiz lanean hasi hasteko prestatzea, berme osoz». Sortzen-Ikasbatuaz-en ustez, oinarriko ezagutzak menperatzea ez da nahikoa: «Alboan ditugun kulturek eta globalizazioak bultzatutako uniformizazio-jan egingo gaitu. Euskal kultura bizib-

ritu eta indartu behar dugu, eta horretarako ez da nahikoa oinarriko ezagutzak menperatzearrekin, euskaldun gisa pentsatu eta bizi behar baitugu».

■ **«Bi hizkuntza ofizialak» (euskara eta gaztelania) maila berean:** «Gaitasun komunikatiboaren garapena bi hizkuntza ofizialekin eta kanpoko batean» izatea da Jaurilaritzaren curriculumaren «lehentasunezko» helburua. Euskararen egoera «guxtiagotua» dela kontuan hartzen duen arren, DBHko ikasle guztiak elebiduntzat hartzea salatu du Sortzen-Ikasbatuaz-ek. Dekretuak ez du Ipar Euskal Herriko euskararen egoera aipatzen.

■ **Salbuesitako ikasleak:** Ikasle etorkinei gainerakoei ezartzen zaizkien hizkuntza helburu berdinak jarriko zaizkiela dio dekretuak; hala ere, euskara ikasketik salbuesita dauden ikasleak egongo dira. Sortzen-Ikasbatuaz-ek «planteamendu okerra» deritzo horri: «Euskara ez emateko arrazioek gaztelera ez emateko ere bali dute». Gainera, elkartearen ustez,

«Euskal Herriak pasatzen denari gure kultura erakusteko betebeharra dugu».

■ **Euskal Herria eta «Espainiako beste eskualdeak»:** Ikasleek Espainiako lurralde antolatuta ikasi behar dute, baina ez Frantziako egitura administratiboa.

■ **Historian, Espainiako gertakariak ikasgai:** Sortzen-Ikasbatuaz-ek salatu du dekretuak Euskal Herriko gertaera historikoak Espainiako gertaera historikoen lotzen dituela beti eta, ondorioz, «Euskal Herriaren historia Hego Euskal Herriaren historia bilakatzen» dela.

■ **Europara begira:** Ikasleak Europako sistema neoliberalerako prestatu, bideratu eta hezi nahi ditu Jaurilaritzaren curriculumak, Sortzen-Ikasbatuaz-en ustez. Eredu hori ikuspegi kritikorik gabe onartzea eta bultzatzea bideratu nahi ditiu ikasleak, elkartearen aburuz: «Dekretuak ez du egiten kultur eta hizkuntza aniztasunaren, estatutik gabeko nazioen eta hizkuntza gutxiagotuen inguruko hausnarketarik».

ELAk uste du gizarte zerbitzuen lege proiektuak ez duela zerbitzuotarako eskubidea bermatzen

Sindikatuaren ustez, legearen erreformak ez dakar berrikuntza esanguratsurik

ERREDAKZIOA
Bilbo

Eusko Jaurilaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak aurkeztutako gizarte zerbitzuei buruzko lege aurreproiektuaren inguruan ELA sindikatuak atzo egin zuen balorazioaren arabera, legea-

ren erreformak ez du berrikuntza esanguratsurik ekarriko. Izan ere, sindikatuaren iritziz, indarrean dagoen legeak antzera definitzen ditu eskubideen, unibertsaltasunaren, publikotasunaren eta zerbitzuen arloko xedapenak. Hortaz, dio, aurreproiektuak ez du gizarte zerbitzuez baliatzeko eskubide subjektiboa bermatzen.

Lege aurreproiektuak iragarritako berrikuntza nabarmenena zen eskubide subjektibo horren aitortzea. Idatzia, ordea, baldintza orokorren eta prestazio bakoitzeko zehazteke dauden baldintza

espezifikoekin menpe uzten du zerbitzuon esleipena. Ondorioz, ELAren ustez, «eskubide hori kolokan geratzen da». Halaber, Euskal Gizarte Zerbitzuen Sistemako presztazioek «izaera unibertsala» izango dutela dio aurreproiektuak, baina atal horretan ere «prestazio bakoitzeko xedatzen diren irizpide baldintzak» bete beharra gaitzesten du ELAk: «Baldintzek gizarte zerbitzuen unibertsaltasuna mugatuko dute berriro ere».

Zerbitzuen ordainkidetza ere gogor kritikatu du ELAk. Izan ere, prestazioetako batzuk «dagokien

prezio publikoaren ordainketari loturik geratzeko aukera» aipatzen du aurreproiektuak, eta diru sarrerarik ez badago, ordainketa abalen bidez bermatzea exijitu ahal izango dela zehazten du. ELAren iritziz, «eskubidea baldintzen menpe jartzeak eta ordainketa ezartzeak, gizarte zerbitzuek ongizateko estatuaren laugarren zutabea izateko inguruko hausnarketarik».

KUDEAKETA PRIBATUAREN ALDE. Gizarte zerbitzuez baliatzeko eskubide subjektiboa eta Euskal Gizarte

Zerbitzuen Sistema erantzukizun publikokoak dira; kudeaketa, ordea, «titulartasun publikoko zein itunpeko titulartasun pribatuko prestazioek, zerbitzuek eta ekipamenduek» osatuko dutela dio aurreproiektuak. Ildo horretatik, «ekimen pribatuari inoizko atxikimendurik handiena» adierazten zaiola uste du sindikatuak. Izan ere, zerbitzu eta zentro pribatuaren sarea fondo publikoetan oinarrituz indartu behar dela dio aurreproiektuak, baina ELAren iritziz, fondo publikoak zerbitzu publikoak sortzeko erabili behar dira.

Guztia kontuan izanik, lege aurreproiektua «propaganda lehiaren atal bat» dela uste du ELAk: «Praktikan, zerbitzuek asistentzialak izaten eta biztanleriaren zati handiena kanpoan uzten jarraituko dutela pentsa dezakegu».